

PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	BENTADES IKASTETXEA	Kodea: 014777	
ARLOA / IRAKASGAIA	ARTE HEZKUNTZA	DATA	2018-2019
MAILA	1 ZIKLOA		
1	ARLOAREN GUTXIENEN HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA		

- Euskal kultura-ondarearen eta beste herri batzuetako ondarearen arte-adierazpenak ezagutzea eta balioestea eta adierazpen-moduak gordetzeko eta berritzeko egindako lana aintzat hartzea. Kontuan hartzea zer nolako aberastasuna ematen duen hainbat kulturatako pertsonekin trukea izateak.
- Oro har, ikusizko kulturako eta musika-kulturako arteek eta produktuek ideiak, sentimenduak eta bizipenak jakinarazteko eta adierazteko eskaintzen dituzten aukerak ulertzea. Arte eta produktu horiek Euskal Herriko eta oro har herri guztietako ondarea eratzen duten elementutzat hartzea, eta, horrela, artea eta kultura ezagutzen eta gozatzeko laguntzea.
- Arte-hizkuntzen tekniken, baliabideen eta arauen oinarriko ezagutza eta jakintza izatea. Teknokiek eskaintzen dituzten aukerak irakastea, sorkuntzetan eta haien erantzunak egiten erabiltzeko, eta, horrela, maila bateko autonomia lortzea arte-hizkuntzaren bidezko komunikazioan.
- Arte-adierazpenen teknikak, baliabideak eta arauak ikertzea eta aztertzea, ikusizko kulturako eta musika-kulturako lanetan, lan horiek hobeto ulertzeko eta lan horiez gehiago gozatzeko, eta erreferente estetiko berriak garatzeko aukera izateko. Horrez gainera, arte hizkuntzaren eremua zabaltzea.
- Pentsaera dibergentearen eta konbergentearen trebetasunak eta norberaren eta besteren ideiak eta sentimenduak berregiteko ekimena, irudimena eta sormena erabiltzea, beharrezko prozesuak antolatuz, arte-ekoizpeneko lanetan erabili ahal izateko.
- Gai izatea sorkuntza-proiektuak eta –lanak garatzean emaitza jakin batzuk lortzeko egin beharreko prozesuen plangintza egiteko, ebaluatzeko eta doitzeko, eta horrek guztiak eskatzen dituen erronken jakinaren gainean egotea. Horrez gainera, arazoak sortuz gero, jarrera eraikitzailez konpontzea.
- Arteen eta ikusizko kulturako eta musika-kulturako produktuen funtzio sozialak eta erabilerak ezagutzea, eta norberaren eta besteen esperimenduetan ezagutzea, produktu horiek hainbat garai eta kulturatan izan dezaketean eta izan duten zeregina ulertzeko eta norberaren kultura-ondarea eta inguruko beste kulturen ondarea ezagutzeko.
- Ikusizko arte-ekoizpenak eta musika-ekoizpenak eta ekoizpen horiek sortu diren garaiaren eta tokiaren ezaugarriak lotzea, ekoizpenen arte-balioa ulertzeko, bai eta garai edo gizarte-talde baten adierazpen gisa ekoizpenek izandako balioa ere. Horrela, arte-ekoizpenaren eta ekoizpenak ingurune fisikoan eta gizarte-ingurunean duen oihartzunaren eta esanahiaren balioa ezagutzeko eta kritika-prozesuak hasteko bideak irekiko dira.
- Taldeko arte-jardueretan parte hartzea, besteren ekimenei eta ekarpenei laguntzea eta ekimen eta ekarpen horiek aintzat hartzea, errespetatzea eta elkartasunez jokatzeko, arte-emaitza ona lortzen lagunduko duten lankidetzako eta talde-laneko trebetasunak garatzeko eta, gizartearen alderditik begiratuta, garapen pertsonala izateko.
- Norberaren artelanetan konfiantza izatea, lanak egiten gozatzeko eta norberaren eta taldearen hazkunderako egiten duen ekarpena aintzat hartzea, autoestimua sendotzeko eta ideiak eta sentimenduak adierazteko gaitasuna hobetzeko.



2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA		
	1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
	<p><u>PLASTIKA:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Udazkena prestatzen. • Joan Miró. Lan teknikak: Ikus entzunezko materiala erabiliz, Joan Miró bizitza eta obren ezaguera. • Eduardo Txillida. Lan teknikak: Ikus entzunezko materiala erabiliz, Txillidaren bizitza eta obren ezaguera. • Koloreak. Lan teknikak: kolore primario eta sekundarioen ezaguera. • Gabonetakorako eskulanak <p><u>MUSIKA:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Gorputz perkusioa. Lan teknikak: musika interpretatu eta adierazteko modu bereziak. • Soinua eta isiltasuna. Lan teknikak: hitz bien arteko desberdintasuna gaur egungo bizitzan. Nota beltza eta beltzaren isilunea desberdinu eta bai interpretatzen bai adierazten ikasi. • Instrumentuak. Lan teknikak: instrumentuen ezaguera. Triangelua erailtzen ikastea. • Animalien soinua. Lan teknika: soinua identifikatzea eta musikarekin uztartzea. • Dantza. Lan teknikak: 	<p><u>PLASTIKA:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Negua prestatzen. • Inauterietarako • mozorroen prestaketa <p><u>MUSIKA:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Eguraldiaren soinua. Lan teknika: soinua identifikatzea eta musikarekin uztartzea. Euriaren adierazpena gorputz perkusioaren bitartez egitea. • Zeinu musikalak. Lan teknikak: sol klabea, pentagrama, beltza, beltzaren isilunea, zuria eta zuriaren isilunea identifikatzen eta zertarako balio duten ikasi. • Instrumentuak. Lan teknikak: instrumentuen ezaguera. Triangelua erailtzea. • Dantza. Lan teknikak: beroketa dantza. Dantza aktiboa. Mugimenduen garapena • Abestea. Lan teknikak: kantak ikasi eta klasean abestu. • Marrazketa. Lan teknikak: instrumentu desberdinak margotu. • Erlaxazioa: Lan teknikak: erlaxatzeko eta musikaz lasai gozatzeko jarduera desberdinen lanketa. 	<p><u>PLASTIKA</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Udaberria prestatzen • Marrazkiak pausoz pausoz. Marrazki artistikoaren fitxak simetriak, marrazki lineala. <p><u>MUSIKA:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Musikograma. Lan teknikak: musika adierazteko beste era bat ikasi. Musikogramak egin. • Orff instrumentuak. Lan teknikak: Orff instrumentuen izena eta soinuak identifikatzen ikasi. • Instrumentuak. Lan teknikak: instrumentuen ezaguera. Triangelua erailtzea. • Dantza. Lan teknikak: beroketa dantza. Dantza aktiboa. Mugimenduen garapena. • Abestea. Lan teknikak: kantak ikasi eta klasean abestu. • Marrazketa. Lan teknikak: instrumentu desberdinak margotu. • Erlaxazioa: Lan teknikak: erlaxatzeko eta musikaz lasai gozatzeko jarduera desberdinen lanketa.



beroketa dantza. Dantza aktiboa. Mugimenduen garapena.

- Abestea. Lan teknikak: euskal kantak. Gabonetako kanta.

- Marrazketa. Lan teknikak: instrumentu desberdinak margotu.



3

EBALUAZIO- IRIZPIDEAK ETA KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

- Kantatzeko, marrazteko... premia sentitzea, eta gertuko testuinguruko eta hainbat kulturatako pertsonen eta artisten esperientziekin harremanetan jartzea.
- Arte-ekoizpenetan ideiak, behaketak, bizipenak, musika-esperientziak... agertzea, oinarrizko teknikak eta baliabideak erabiliz.
- Ikusizko ekoizpenak eta musika-ekoizpenak aztertzea, eta teknika errazak, materialak eta ekoizpen horietako hizkuntzen oinarrizko elementuak ezagutzea.
- Materialak, naturako elementuak, tresnak, euskarriak, ahotsa, gorputza... probatzea, eta adierazteko eta komunikatzeko erabiltzea.
- Lanaren plangintza egiten du, proposamen jakin baten arabera ezarriko diren faseak arrazoituz.
- Hainbat garai historikotako eta hainbat kulturatako ikusizko kulturako eta musika-kulturako arteen eta produktuen zenbait funtzio eta erabilera ezagutzea, gertuko esperientziatik abiatuta
- Irudiak eta musika egiteko hainbat moduren arteko aldeak ezagutzea, irudi eta musika horiek sorteen diren testuinguru historikoak eta kultura-testuinguruak kontuan hartuta.
- Arte-ekoizpen errazak taldean egitea.
- Arte-jardueretan, ideiak, gertaerak, esperientziak eta bizipenak inhibiziorik gabe agertzea, sormenez eta modu pertsonalean.
- Ikusizko adierazpen estetikoaren eta musika-adierazpenen arteko aldeak eta alderdi komunak ikustea eta hautematea, eta kultura-aniztasun eta –aberastasuntzat hartzea.

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

Musika irakasgaiko kalifikazioaren portzentajea honelako da:

- **Edukiak: % 20** (Edukien barneraketa frogatzeko jarduerak, talde lanak, jolasak...)
- **Prozedurak: %40** (Lan taldeetan jarraitutako prozesua, fitxen ordena eta txukuntasuna, jarduera musikalak burutzeko era...)
- **Jarrera:%40** (Parte hartzea, interesa, lan egiteko nahia, errespetua bai irakasgaiarekiko, bai ikaskideekiko eta bai irakaslearekiko...)

Plastika irakasgaiko kalifikazioaren portzentajea honelako da:

- **Prozedurak: % 50**
- **Jarrera:% 50**